



DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

1872067

## VIII BILTZAR NAGUSIA

000531093.

### **Eztabaidak bideratzeko eta dinamizatzeko gidoia**

#### ***Eztabaidaren inguruan***

Gure lehentasuna sindikatuaren militantzia talde nagusiak egiten dugun proposamena eztabaidatzea da. Egia da afiliazioak parte hartzen badu oso adierazle ona izango dela, baina eztabaida militantziari begirakoa da batez ere. Hori kontutan hartu behar dugu markoak antolatzean, baita eztabaida dinamizatzerakoan ere. Adibide argiena antolakuntzan eman daiteke, federazioen apustuaz eta sektore-federazioen arteko loturaz militantziarekin egin behar den eztabaida bat da. Afiliazioarekin ari bagara logikoagoa da sail sindikalei eta herri biltzarrei buruz eztabaidatzea eta langileak antolatzeko eman behar ditugun urratsetan zentratzea. Idatzi hau militantziarekin egin beharreko eztabaidei begira egin dugu beraz kontutan hartu osatu edo egokitu egin behar dela segun eta zein den markoa.

#### ***Gidoiaren inguruan***

Ponentziaren atalen arabera egin dugu. Ez du esan nahi gidoi guztia jarraitu behar denik eztabaida egiteko, atal bakoitzaren eztabaidan laguntzeko balio du baina esan dugunez, eztabaida marko bakoitzaren arabera egokitu nahi eta behar hainbeste.

### **LEHENENGO ATALA: EGOEAREN AZTERKETA**

#### **Idea nagusiak:**

- Kapitalismoak bere burua bere osotasunean berrantolatu eta berregituratu behar du. Ziklo oso bat bukatu da, ez neoliberalismoaren gainean eman den hazkunde fase baten bukaera bakarrik. Arazoa ez da neoliberalismoa agortu dela, txikia geratu dela. Sistema kapitalistak sakoneko eta egiturazko arazoak ditu aurrera egiteko, arazo horiek resolbitu behar ditu eta ez du oraingoz konponbidea aurkitzen. Beraz:
  - Aldaketa sakonak ekarriko dituen fase batean gaude, bai mundu mailan, baita maila lokalean ere. Krisiak luzera joko du eta oso oso gogorra izango da. Langileontzat arazoa ez da noiz irekiko den hazkunde fase berri bat, baizik ziklo berrian hazkunde eredu oso bortitza izango dela, gutxi batzuen mesedetan izango delako. Aberastasunaren banaketa orain baino desorekatuagoa izango da, bai herrialdeen artean baita lana eta kapitalaren artean ere.
  - Gure etorkizuna nolakoa izango den erabakitzen ari dira eta erabakiko dute datozen urteetan. Erabakiak nork eta nola hartzen dituen da klabea. Hori da borroka. Hori da Euskal Herriak herri bezala egin behar duen borroka krisi honen aurrean, eta hori da euskal langileok egin behar dugun borroka erabakietan parte hartu nahi badugu.
- Euskal Herriak bere bidea egin behar du eta baldintzak daude horretarako. Orain da garaia bide hori egin dezagun erabaki berriak hartzeko. Premia, baldintzak eta aukerak daude. Zergatik:
  - Estatu espagnolari lotuak jarraitzea geroz eta aukera kaltegarriagoa da baita ekonomikoki aztertuta ere.
  - 78ko erabakiak guztiz agortuak daude eta erabaki berriak hartu behar dituzte Estatuan. Estatu oso ahul dago nazioartean eta barne mailan. Oso ahul dago benetako krisi politiko bat irekitzen bada Euskal Herria-Estatuaren artean. Ez du

zer eskaini, ez du akordioak eraikitze aukera gehiegirik. Bitarteko juridiko eta legislatiboak ditu bere politikak inposatzeko, baina ez du estrategia sendoriek lurralde ereduaren krisia behinbetirako ixteko.

- Euskal Herrian bide bat hartu genuen independistak orain hiru urte eta hori gorpuztu eta indartuz gero baldintza politiko eta sozialak daude jendartearen babesa jasotzeko. Estatuaren aurrean gehiengo politiko eta sozial bat jartzeko.
- Gaur nekez jarri daiteke jende asko erabakitze eskubidearen kontra. Geroz eta zailagoa zaie CCOO eta UGTri Madrilen hartzen diren erabakiak hemen justifikatzea eta horren ondoan eskaintza sinesgarri bat egitea. Ofentsiba politiko soberanista bat eginez gero geroz eta argudio gutxiago daude Espainiari lotuak egotea aukera ona dela aldarrikatzeko.

### **Eztabaidaren inguruan:**

Nazioarteko egoeraren inguruan luze eta zabal hitz egin dezakegu eta eztabaida asko sortu daiteke. Baina honetan ez dago ezadostasunerako gauza asko. Garrantzitsuagoa da urrats berriak emateko aukerak, zailtasunak, baldintzak... non dauden aztertzea eta eztabaidatzea. Jendearentzat hori gertuko eztabaida da, eguneroko elkarriketa eta solasaldietan modu batean edo bestean egiten dugulako.

### **Galdera – erantzunak:**

- Normalean azterketak motzak direla eta elementuak falta direla esaten da eztabaida. Erantzunak:
  - Guk argazki orokor bat egin nahi izan dugu, gure ustez determinanteak diren gauzak jasoz. Osatu behar da noski, ekarpenak eta zuzenketak egiteko bidea irekia dago. Gure ustez erabaki estrategikoak hartzeko garrantzitsuena bizi dugun egoeraren dimentsioaz eta garrantziaz jabetzea da.
  - Azterketarekin zein fase historikoan gauden azaldu nahi izan dugu. Ez dugu gertatzen ari den guztia zerrendatu eta goitik behera aztertu nahi izan. Krisiaren kontra egiten ari garen borrokak azterketak eguneratzen eta balorazioak uneoro egiten eduki gaitu. Ez dugu guztia ponentzian errepikatu nahi izan askotan zailagoa egiten duela klabeak non dauden ikustea.
- Nazioarteko egoerari buruzko galderak aurreikustea zaila da. Normalean ez dira gehiegi egoten eta beste batzuetan horretan "adituak" direnak egiten dituzte. Eztabaida nagusia "krisia" terminoaren inguruan ematen da, ez delako oso egokia eta diskurtso ofizialaren arabera erabiltzen den terminoa delako. "Hau ez da krisi ekonomiko bat sistemikoa baizik", "ez gaude krisian kapitalismoaren berrantolaketa oso baten aurrean baizik"... Erantzunak:
  - Azterketa bere osotasunean hartu behar da. Krisiaz hitz egiten dugu azken urteetako diskurtsoaren arabera, baina ponentziak jasotzen duena sakoneko arazoa da.
  - Hoberena ekarpen moduan jasotzea horrelakoak, azterketa osatzeko... normalean zuzenketak egiten dituzte azterketa zorrotz behar dela esaten dutenek.
- Euskal Herriaren egoerari buruz eztabaida nagusia "politikoa" izan daiteke. Ezker abertzalearen ildo eztabaidatzeko baliatzea kongresua, edota galderak horrerik lotuak egotea. Ez dugu horretan zentratu nahi, baina ez dugu eztabaida hori

ekidingo edota baztertuko. Erantzunak:

- Gertakari nagusien inguruko balorazioak eginak daude (su etena, gernika, aiete...). Horietan dago gure jarrera eta balorazioa.
- Ezker abertzaleak hautu bat egin behar zuen askapen prozesuaren egiturazko egoeraren arabera, eta hautua hartu dugun bidea hartzea izan da. Gure ustez, bide honek momentu historiko honetan aukera handiak eskaintzen dizkigu aldaketa prozesua indartzeko, bideratzeko eta aurrera ateratzeko. Egiten dugun proposamena hartutako bidearen arabera da, eta hartutako bidean urrats berriak emateko aukerak eskaintzen ditu. Galdera – erantzun zehatzak:
  - Aukerak bai baina arriskuak ere baditu bide honek, independentziaren aldeko borroka irenstea eta asimilatzea batez ere. Hori da Estatuaren asmoa, beti izan den bezala. Arazoa ez da apustua, arrisku hori kontutan hartzea eta borrokaren bidea gure erabakiekin elikatzea eta indartzea baizik.
  - LABek bide honetan jokaturako papera inguruan. Lidergoa eremu politikoan egon da, horrela egitea erabaki genuelako guztion artean. Guk hartutako bidea bultzatu eta babestu dugu, ulertzen dugula euskal langileon borroka nagusiak aurrera ateratzeko aukerak ematen dituela.

## **BIGARREN ATALA: GURE ESTRATEGIA**

Ideia nagusiak:

- **Trantsizio batean gaude.** Ziklo berri bat irekitzeko bidea egiten ari gara. Mundu mailan gertatzen ari den hori Euskal Herrian ere ematen ari da baina ezaugarri eta berezitasun propioak ditu. Guk trantsizio hori egiteko estrategia zehatz bat behar dugu, kontutan hartuz Euskal Herriko prozesuaren ezaugarriak, kontutan hartuz Euskal Herrian helburu propioak ditugula eta kontutan hartuz independentistak garela. Hau da:
  - Estrategia definitzeaz ari gara. Egia da sakoneko arazo oso antzekoak ditugula hemen eta Grezian. Baina aukerak, baldintzak eta zailtasunak estrategia definitzerakoan ez dira berdinak. Argentinan oso baliagarria izan zen estrategia batek ez du zergatik Euskal Herrian balio berdina.
  - Ezin da burujabetzaren auzia kontutan hartzen ez duen estrategiarik definitu Euskal Herrian. Murcian oso baliagarria den estrategia batek ez du balio honerako. Murcian ez dago mugimendu independentistarik, ez dago herri eredu eta proiektuen arteko lehiarik, ez dago gatazka bat konpontzeko beharra, ez dago konponbidearen inguruko auzia... guzti horiek baldintzatu eta ezaugarritzen dute Euskal Herriko aldaketa prozesua eta kontutan hartu behar dira, onerako eta txarrerako. Ez da bakarrik guzti hori kontutan hartu behar dugula gure estrategia definitzeko, baizik kontutan hartu behar dugula euskal herriko kapitalak eta estatuak guzti horren kontra egin behar dutela eta guzti hori indagabetzea lortu behar dutela. Beraz gatazka horren ganean finkatu behar dugu estrategia.
  - Guk independentistak garen heinean aztertu eta finkatu behar dugu estrategia. Hau da, berdin bazaigu Estatu bat eratzea edo autonomia bat izatea pentsatzen dugulako modu batean zein bestean ziurtatu daitezkeela langileen eskubideak estrategia bat finkatuko dugu. Eta ezinbestekoa iruditzen bazaigu beste bat finkatuko dugu. Hau esatea soberan dago baina klabea da momentu honetan

hartu behar ditugun erabaki estrategikoak hartzeko, batez ere hiru eremuetan: non dauden lehentasunak, non daude bidailagunak eta zeren arabera hartu behar ditugu erabakiak.

- Gure ustez, lehentasunezkoa da krisiaren kontrako borrokan bildu eta kalera atera ditugun indarrak estrategia soberanista batean kokatzea EZ dagoelako Estatuaren gestio eta parametroetan inolako irtenbiderik ematea gaurko egoari.
- **Aldaketa prozesua azkartu behar dela pentsatzen dugu.** Horrek zer esan nahi du, horretarako zer planteatzen dugu?
  - Aldaketa prozesua martxan da, baina indartu eta azkartu behar da aurrera egiten ez dugun bitartean atzera egiten dugulako. Guztia suntsitzen ari dira beraz ez da berdina eraikuntza prozesua orain indartzea edo orain baino okerrago gaudenean indartzen saiatzea. Honek esan nahi du erabakiak hartzerakoan kontutan hartu behar dela urgentzia egoera batean gaudela, beraz konpromisoak eskatu eta hartu behar ditugula. Honek zertan eragiten ditugu: gure lehentasunak jartzerakoan, gure agenda estrategikoa egiterakoan.
  - Euskal Estatuaren aldarrikapena orain egin behar dugu, lehentasuna krisiari irtenbide propio bat ematea bada? Independentismoa indartzea, geroz eta babes handiagoa izatea da aldaketa prozesua azkartzeko bideetako bat. Zenbat eta nabarmenagoa independentismoa zabaltzen ari dela sindikalgintzan, instituzioetan, mobilizazio sozialetan, eztabaida sozial eta politikoan... orduan eta azkarrago behartuko ditugu erabaki berriak hartzera.
  - Zein da momentu honetan helburu taktiko estrategikoa? Aldaketak lortzea, erabakitzeko eskubidea eta eredu berriaren oinarriak jartzea. Hau da, krisia hau da guk eskatzen ditugun aldaketa sozialak egin ahal izateko bitartekoak eta oinarriak eskuratzea ekarri behar duena. Eredu soziala aldatzea bide oso baten emaitza izango da, bide horretan eman behar dugun aurrera urratsa da bitartekoak eskuratzea (politika ekonomikoak euskal instituzioek erabakitzen dituzte eta ez dira Madrilekoen arabera finkatzen. Negoziazio kolektiboa hemen erabakitzen da....)
- **Borrokatzea eta aldaketak aurrera ateratzeko akordioak eraikitzea proposatzen dugu.**
  - Non daude akordio posibleak, eta zergatik esaten dugu akordioak posibleak direla. Independentismoa nagusitzen ari dela ikusiz gero akordioen bidea aukera bat da hori mugatzeko edo baldintzatzeko (lizarra garazin gertatutakoa). Sindikalgintza abertzalea indartzen jarraitzen badugu eta geroz eta gatazkatsuago bada akordioen bidea aukera bat da hori mugatzeko edo baldintzatzeko. Akordioen bidea aukera bat da, bai guretzat, baita Estatuarentzat eta patronalarentzat ere. Aukera horren alde egiten da beste aukerarik ez dagoenean. Gakoa beste aukerarik ez ematea da.
  - Akordioak posibleak dira **BORROKATZEN ARI GARELAKO ETA HORI DAGOEN BITARTEAN, ETA HORI INDARTZEKO GAI GAREN BITARTEAN, EGOERA BERRIAK SORTZEKO GAITASUNA DUGU ETA URRATSAK EMATERA BEHARTZEKO AUKERAK DITUGU.**
  - Akordioak posibleak dira **SAKONEKO KRISI HONETAN INORK EZ DUELAKO KONPONBIDEA BERE ESKUETAN.** Beste gauza da patronalak

bere interesak nagusitzeko boterea baduela, baina benetan konponbideak eraiki nahi baditugu akordioak behar dira, guztiak behar ditugu.

- Nolako akordioak? Aliantzak eraikitzeke batzuk, aldaketak hitzartzeko besteak.
- Aliantzak eraikitzeke: eremu bakoitzean, eremuen artean... arrazoia borroka indartzea. Fase honetan borrokatu behar ditugun helburuak hitzartzen diugulako, borrokan eman nahi ditugun urratsak hitzartzen ditugulako eta urrats horien alde nola borrokatuko dugun hitzartzen dugulako.
- Aldaketak hitzartzeko. Sektore eta interes ezberdinen artekoen akordioak. Akordio hauen jatorria borroka da, borrokatu akordioaren aukera sortzeko, akordioetara behartzeko. Garrantzitsuena, aukera dagoenean akordioak eraikitzeke eskaintza zuzenak edukitzea.
- Konfegaskek proposatzen badigu Euskal markoa eraikitzea gure eskubideen truke, gure klase interesak bidean utziz. Onartuko dugu lehentasuna burujabetza delako? EZ. Burujabetzaren bidea ez dugu kromoen elkartrukaketa bat bezala ulertzen.
- Konfegaskeri negoziatio kolektiboaren alorrean egin akordio proposamenaren gakoa da markoa eta eredu ezin dela bereiztu. EZ diogu proposatu "euskal markoa blindatzen dugu kontutan hartuz euskal markoan soldatak hainbeste igotzen direla por principio eta lanordua hainbestekoa dela por principio" baizik "euskal markoa blindatzen dugu eta horrek esan nahi du soldatak eta lanorduak hemen erabakitzen direla". Klase gatazka eta nazio gatazka elkarlotu behar ditugu, baina ez du esan nahi momentu berean konpondu edo akordio berarekin gaindituko ditugunik.
- Paktu sozial bat egin daiteke Euskal Herrian non eredu soziala adosten eta hitzartzen dugun? Gu ez gara horren aldekoak. Ez dago indar harremanik. Baina gainera, ez dugu horretarako eskaintzarik. Guretzat orain akordio izan behar dugu krisiari irtenbidea euskal herrian eman behar zaiola, euskal eragileen esku dagoela. Beraz erabakitzeke eskubidearen gainean eman behar da.

## **HIRUGARREN ATALA: BORROKA ESTRATEGIA.**

### **LAUGARREN ATALA: ANTOLAKUNTZA**

Bi ponentzietan dago baina eztabaida bakarra egitea litzateke hoberena. Ponentzia politikoan planteatzen dugun antolakuntza ziklo berri bat irekitzeke gogoeta egiteke baliatuz eta antolakuntzako ponentzian ditugun errokei aurre egiteke beharrezkoak diren aldaketak eztabaidatuz.